

Doctor Deseo taldearen "La fuerza de la fragilidad. Palabras ante el espejo" diskoa César Ibarretxe soinu teknikariak grabatu, nahastu eta masterizatu du Gaua Studio, Keep Rollin' Studio eta BSO estudioetan 2018ko urtarril, otsail eta martxoan. Edu Basterrak teknikari lanak egin ditu baxuaren grabazioan. Hitzak eta doinuak Francis Diezek egin ditu. Laguntzaileen zerrenda: Marta Ortiz (hitzak, Nire munstroa), Aiora Renteria (koruak, Adiós), Ander Hurtado de Saratxo (perkusiokoak, Adiós eta Que me quiten lo bailado) Karlos Giménez (pianoa, Alfarera de sueños), Edu Basterra (koruak, Sigo bailando). En "Una mirada distinta", "¿Cuánto frío hace en Saturno!" y "Corazón de tango" (CD-DVD): Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Waldemar Machmar, kontzertinoa. Fernando Velázquez, zuzendaria. Spinny Walder, produkzio musikala. Marc Blanes & Ernesto Maestro, grabaketa eta nahasketak. Jaime Gutierrez & Alfred Tapscott, produkzio laguntzaileak. Rubén Díez, gainbegiratzailea. ABS & Argilun, argiztaketa. Ogeita4, kamara eta operadoreak. Javier Agirre Erauso, argazki zuzendaria. Pausoka, bideo grabaketa eta nahasketa orokorra. Jabi Elortegi, bideo zuzendaria. Karlos Trijueke & TAOM (Adiós bideoklipa). Lur Merino (diseinuak).

Doctor Deseo taldeak dantzatu aditza maiz erabiltzen du hitzetan. Adiera berezia du taldearentzat horrenbeste aldiz baliatzeko. Dantza eginez lakek gatazko jendeari. Dantzaten geure burua atsegin dugu. Gorputzari eta espirituari on egiten diogu dantzatzen. Mugimendu geldo edo bortitzak txundigarriak izan daitezke. Dantzak pizten ditu ametsak, emozioak eta errealitateak... eta desirak.

Diskoak dituen kantu indartsuenetan garage eta dance musiken osagaiak aurkituko ditugu gitarra zalea den rock boteretsuarekin nahastuta, batzuetan Australiako garagea etor dakiguke burua, besteetan grunge amerikarra gitarrez lepo. Tarte askibototan oharituko gara dantzatzeko den dance-aren ukituaz baita leloetan ere. Dancea gustukoa du Doctor Deseok eta bada modua ere garagea ulertzeko. Elektronikarekin jolas egiteko ere ongi datorkie. Oso era naturalean nahastu dituzte erritmo ahaltsu, kementsu eta gitarra zaleak elektronikako dance kutsuekin. Saxoa fin eta leun sartuko zaigu arnasketa askean, Adiós abestia lekuko.

Liburua gehi CDa eta DVDa, bai. Balio erantsia eman nahi zaio argitalpenari eta Doctor Deseo zaleei gauza berezi bat eskaini. Kantu berriekin batera Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egindako hiru bertso sartu dira. Liburua Doctor Deseo taldearen oparia da eta oparigai. Mezu hau helarazi nahi zaio zaleari: oparitu Doctor Deseo.

Eta horretaz doaz abestiak

### PEQUEÑOS HÉROES

Erritmoak gainetza egiten du berarekin dramatzalako dance, garage eta grunge musiken osagarri bizkorak. Kapsula leherkariaren tankera du. Denok gara heroi txikiak. Esaldia Bowie kantariari egindako keinua izan daiteke. Larritasunaren aurkako oihua da (Munch-en marrazkia pentsamenduan dugula).

### ADIÓS

Kantuak bals baten itxura guztia du 3X4 erritmoarekin baitoa. Elkartuta dantza egiteko balio du. Aiora Renteriarekin koru hunkigarria du. Azken finean, kantuak oinarriko gauza batez hitz egiten du, hots maite ditugun pertsonen heriotza nola hartu eta hari nola egiten diogun aurre, horretaz doa. Heriotzaren gainean ari da gardentasunez. Denoi hiltzen zaizkigu gertukoak, heriotza oinarrikoa da bizitzan, halaber, norbera ere hilko da. Hori buruz doa diskoa. Espezie bezala, beti estu eta larri gabilza aurrean dugunarekin, badakigulako hilko garela, badakigulako gaitzak izango ditugula, badakigulako uneoro dugula Damoklesen ezpata gure gainean, badakigulako maite ditugun horiek hilko direlako, horregatik guztiagatik gaude estu eta horrekin bizitzeak egiten gaitu txiki, ezegonkor, zalantza eta hauskor. Baina hori gure helduleku eta indar bilaka dezakegu, besteengano enpatikogoz izanez eta era horretara egokiago uker dezakegu albokoaren mina eta baita geure ere. Abagune horretatik sor dezakegu zerbait desberdina eta indartsua. Orain arte basakeriaren indarra botereek, hainbat gizonek, gerlek... erabili izan dute. Indar hori da hauskortasuna onartzen ez duenarena, eta horregatik basakeriaren erakustaldiak egiten ditu. Disko hau hori guztiaren aurka doa. Basoko legea edo indarraren legea da basakeria eta denbora luzea da paradisuak irten ginelako.

### POR LA MADRIGUERA DEL CONEJO BLANCO

Nietzsche filosofoak dio: "Hau da bizitza? Betorkit berriro, orduan". Ricky Martin kantariaren erantzuna: "living la vida loca". Doctor Deseo taldeak malabarismo jokua egingo du horrekin. Galdera bat dago diskoaren gainean: mina nola eraldatu merezi duen zerbaitetan. Beti dago desiraren bat dantzaren gauean. Bizitza eroak edo bizitza gogorak gu guztiok akabatuko gaitu baina beti eskatuko dugu gehiago. Bizitza da daukagun gauzarik boteretsuena, agian hori da daukagun gauza bakarra. Berez du bizitzak zentzua, jaikoen beharrik gabe, bizitza bera balio bezala ulertuta.

### EL CUENTO DE LA BOTELLA Y SUS DOS MENSAJES

Gorputzak ez dionean kasurik egiten buruari eta ez dakigunean zer egin sortzen dira mezuak beste gorputz desberdinak desiratuz. Kantuak transexualitatea eta transgeneroa du mintzagai.

### SIGO BAILANDO

Dubstep musikaren zertzelada lanbrotzua. Kantu kementsua eta funtsezko indar primarioarekin, elektronika garage eta dance-arekin bat egitera dator nagusiki. Edonori jaurtitzeko modukoa.

### NIRE MUNSTROA

Labirintoan emandako ibilaldia da eta norberaren munstroarekin elkarretaratzea erabakitze aldakuntza eta eraldatzeko, barruan daramagun munstroa albora utziz. Diskoan dagoen euskarazko abestia da. Rock erritmo labirintikoa eta hipnotizatzailea popera lerrotatuta. Sentsazioen eta gustuen irauketa.

### QUE ME QUITEN LO BAILADO

Klarineteak kantua eraldatzera darama. Bazuen, hasieran, kutsu iluna baina gero argia eman diogu elektro-swing ukitura ekarrita. 1987an argitaratu genuen "Escupe a la muerte" abestiaren bertsoia da.

### ALFARERA DE SUEÑOS

Hauskortasunak mundua eraldatzeko gaitasuna dauka. Pianoaren soinuak lagunduta itxiko dugu diskoa gitarren zama handiarekin, dance eta garage-arekin batera. Liluragarritasunaren antidotoa eta antitesia.

### LA PORTADA

Azalak erakutsi nahi du hauskortasunaren indarra. Bi emakume, ustez, sendotasun fisikoa eskatzen duen lana egiten ari dira baina hauskortasun eta edertasunean oinarrituta. Doctor Deseo taldeak maiz erabili duen orekariaren mitoa ere hor ageri da (bizitza hari-harian ibiltzea baino ez da eta komeni zaigu, bai, neurria hartzea). Bai, bi emakume azalean, orain arte hauskortasuna emakumearen gauzatzen hartu baita. Baina hauskortasuna sendotasunetik dator, eta gainerakook hortik kopiatu beharko genuke bizitza doakigulako horretan guztian eta, gainera, mundua ulertzeko modu desberdina delako. Emakumearen askatasunak gizonarena ere ekarriko du berarekin. Patriarkatuaren eginkizuna zeharo kaltegarria izan da emakumearentzat, eta baita gizonezkoentzat ere. Gizonak patriarkatua izan duen eginkizuna kaka zaharra izan dela ulertzea gizonarentzat berarentzat garrantzitsua da. Hauskortasunetik sortuko dira balio handia dituzten gauzak, adibidez, enpatia (nik zaintzen zaitut, zuk zainduko nauzu). Enpatiatik eta hauskortasunetik sortuko da mendekotasun botere harremanik ez egotea. Modu honetara lankidetzara gehiago bilatuko dugu eta ez etengabeko norgehiagoka zeinak testosterona baitu oinarrian. Samurtasuna izan daiteke guztiaren oinarri.

### Francis: ahotsa

Toro: gitarrak

Josi: baxua eta koruak

Raúl: teklatuak

Joe: saxoa eta klarineta

Txampi: bateria

ritxi aizpuru + francis diez  
(2018ko apirilaren 12a)

# DOCTOR DESEO

## LA FUERZA DE LA FRAGILIDAD

PALABRAS ANTE EL ESPEJO

apirilaren 14an, Durango  
apirilaren 28an, Santander  
maiatzaren 5ean, Gasteiz  
maiatzaren 11n, Donostia  
maiatzaren 12an, Donostia  
maiatzaren 18an, Bilbo  
maiatzaren 19an, Bilbo  
maiatzaren 25ean, Iruña  
ekainaren 2an, Madril